

Usurbilgo Udala

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2020KO URTARRILAREN 14EAN
GOIZEKO 9:00ETAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK:

Alkatea: Agurtzane Solaberrieta Mesa.

Zinegotziak: Beñat Larrañaga Urdanpilleta eta Lur Etxeberria Gurrutxaga.

Idazkaria: Irantzu Arrizabalaga Gainza.

Ez dira bertaratu: Joxe Mari Iribar Zapirain eta Itziar Basterrika Unanue.

1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA: 2019/12/17KO EZOHIKO BILKURA.

Batzarkideek, 2019ko abenduaren 17ko ezohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- UDARREGI IKASTOLA IRAKASKUNTZA KOOPERATIBA ELKARTEARI SGED-2 (AGERIALDE) SISTEMA OROKORREAN DAGOEN FRONTOIA ETA PATIOAREN ZATI BAT ESTALTZEKO UDAL BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.04/2019-0509


UDARREGI IKASTOLA, IRAKASKUNTZA KOOPERATIBA ELKARTEAK (F20083465), Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako SGED-2 (Agerialde) Sistema Orokorrean dagoen frontoia eta patioaren zati bat estaltzeko udal baimena eskatu, Oinarritzko Proiektua aurkeztearekin batera.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	209.999,85 €
Obrari dagozkion hobariak:	Indarrean diren Ordenantza Fiskalen araberrako hobariak ez dira aplikagarriak.
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 1.469,85 €
	Fidantza (%120): 1.763,82 €

Alkateak 2019ko maiatzaren 24an emandako 2019/0477 dekretuaren bidez, UDARREGI IKASTOLA, IRAKASKUNTZA KOOPERATIBA ELKARTEARI, SGED-2 (Agerialde) Sistema Orokorrean kokatutako jabari publikoko 426,20 metro karratuko lursailaren erabilera pribatiborako administrazio-emakida esleitzea erabaki zuen, Agerialdeko pilotalekua estali ahal izateko. **Administrazio-emakida 2019ko maiatzaren 24an **formalizatu zen dagokion hitzarmena izenpetuz.****



Usurbilgo Udala



FRONTOIA ETA PATIA ESTALTZEKO OINARRIZKO PROIEKTUA

Orain berriz, UDARREGI IKASTOLA, IRAKASKUNTZA KOOPERATIBA ELKARTEAK (F20083465), Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako SGED-2 (Agerialde) Sistema Orokorrean dagoen frontoia eta patioaren zati bat estaltzeko Oinarrizko Proiektua aurkeztearekin batera udal baimena eskatu.

Aurkeztutako Proiektua aztertu ostean, udal arkitektoak, Amaia Illarreta Izeta andereak, 2019ko abenduaren 19an ALDEKO txostena eman du.

Gauzak horrela, udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

LEHENDABIZI: UDARREGI IKASTOLA, IRAKASKUNTZA KOOPERATIBA ELKARTEARI (F20083465), Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako SGED-2 (Agerialde) Sistema Orokorrean dagoen frontoia eta patioaren zati bat estaltzeko udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- **EXEKUZIO PROIEKTUA.** Obrak hasteko ezinbestekoa izango da aurrez Exekuzio Proiektua udalean aurkeztua eta honen onespena jasotzea.
- **Obrak hasi aurretik. 15 eguneko epean:**



Usurbilgo Udala

- Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 1.469,85 eurotakoa da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (1.763,82 €). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Oro har, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

1.763,82 €-ko fidantza, Kutxabankeko 2095 5069 07 1060024832 kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta "*Fidantza: HZ.04/2019-0509*" jarriaz kontzeptuan.

- Obrak hasteko **ZUINKETA AKTA izenpetu beharko da** udal aparejadorearekin.
- Uranga Royo UR Arquitectura SLP enpresako Xabier Uranga Royo eta Zuria Arechaga Loyo Alzuru arkitektoek 2019 irailean idatzitako Oinarrizko Proiektuari egokiturik egingo dira obrak, beti ere, jarraian aipatuko diren eta udal teknikariak bere txostenetan ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.
- EKT-REN BETEZEA ETA ARAUDI APLIKAGARRIA. Proiektuaren erredaktatzailearen erantzukizunaren baitan gelditzen da, ezinbestekoa izanik hura betetzea.
- Obren egikaritzak ezinbestean indarrean den aplikaziozko araudia bete beharko du (AASSTB, CTE, RITE, Tentsio baxuko Reglamentua, e.a.).
- Obra burutzeko zoru publikoan aldamiok edo kontainerra jarri behar izanez gero, udal baimena eskatuko da horretarako prestatuta dagoen inprimakia erabiliz. Hartuko den azalera eta, hasierako eta bukaerako egunak zehaztuko dira.
- Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak dioenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafikoko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.
- OBRA BAIMENAREN EPEAK:
 - Obra hasteko epe gehiengoa: 6 hilabete.
 - Obra geldituta egon daitekeen epe gehiengoa: 3 hilabete.
 - Obrak amaitzeko gehieneko epea: urte 1.
- **Behin obrak bukatu ostean, eta Lehen Erabilera baimena eskatuko da ondorengo dokumentuz lagundurik:**
 - Obra lanen lizentziaren edo lizentzien kopia.
 - Obren Zuzendari Teknikoak izenpetu eta dagokion Kolegioak bisaturiko Amaiera Ziurtagiria edo obra lanen bukaeraren egiaztagiria, lan horiek



Usurbilgo Udala

lizentziaren funtsa den proiektuaren arabera gauzatu direla adieraziz, ezarriko ziratekeen baldintza bereziak ere kontutan izanda.

Horrekin batera CTE betetzen duela ziurtatuko duen agiria aurkeztuko da, Zuzendari Teknikoak zigilaturik eta Kolegioan bisaturik.

- Egiaz burututako obra lanen planoak, lizentziaren funtsa zen proiektuari galdatzen zitzaizkion eskalez eta xehekapen mailaz.

1/200 edo 1/500 eskaladun udal kartografiaren gainean, lur zatiaren behin betiko egoeraren planoak ere aurkeztuko da, burututako eraikuntza eta hirigintzako obra lanak bertan jasoz eta ondoriozko sestra berriak aipatuz.

- Eraikin edo instalazioen kanpoko aldean argazkiak, 13 x 18 cm. takoak, atzealdean baimenaren titularrak, obra lanaren Zuzendariak eta proiektuaren egileak izenpetuta, errealitatearekin bat datoze adieraziz.
- Obralanen Zuzendariak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzitako azken likidazioa, lan eta instalazioen egiazko kostea adieraziz.

- **Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:**

- Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.
- Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
- Indarrean dauden lege eta ordenantzen arabeko segurtasun neurriak beteko dira.
- Baimena hau hirugarrengoen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.


3.- HAASETAKO A-96 (PORTALMUSU) ETA A-97 (KOMENTUA) EREMUETAKO URBANIZAZIO PROIEKTUA BEHIN BETIKOZ ONARTZEA.

Puntu hau mahai gainean geratu da.

4.- EKINTZAILEENTZAT KABIENE ELKARTEAK DUEN ELKARLAN-GUNEAN EGONALDIRAKO DIRULAGUNTZAREN 2. ZATIA ORDAINTZEA (HASIZ HAZI BEKA).

Esp.zk.: HE.06/2018-0026

Ikusirik



Usurbilgo Udala

2018ko maiatzaren 28an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean Hasiz Hazi beka, ekintzaileentzat Kabiene Elkarteak duen elkarlan-gunean egonaldirako dirulaguntzaren oinarriak argitaratu ziren.

Hasiz Hazi bekaren hautatze eta jarraipen batzordeak bi ekintzaile hauei Kabieneren elkarlan-gunean urtebeteko egonaldiari dagokion dirulaguntza ematea proposatu zuen.

Eskatzailea	NAN	ENPRESA PROIEKTUA
Aroa Etxeburua Urgartemendia	72554358-F	“Karena” Psikologia Perinatala
Maitane Zuriarrain Urdanpilleta	72487184-Q	“Mundu ttiki bat” Barne diseinua

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2018ko abenduaren 5ean egindako bilkuran, ekintzaileentzat Kabiene Elkarteak duen elkarlan-gunean egonaldirako dirulaguntzaren kopuruak behin betiko onartu zituen.

Orain, bi ekintzaileak emandako dirulaguntza justifikatzeko jarraian zehazten den dokumentazioa aurkeztu dute, erabilerara amaitu eta gehienez ere hilabeteko epean.

- Burututako jarduerak eta lortutako emaitzak zehazten dituen memoria sinatua. (V. eranskina)
- Alokairuari dagozkion ordainagiri originalak edo fotokopia konpultsatuak.

Eta kontutan harturik


- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituenak.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01).
- Hasiz Hazi beka, ekintzaileentzat Kabiene Elkarteak duen elkarlan-gunean egonaldirako diru-laguntzaren oinarriak (GAO, 2018/05/28).
- Hasiz Hazi beka, ekintzaileentzat Kabiene Elkarteak duen elkarlan-gunean egonaldirako diru-laguntzaren behin betiko ebazpena (GAO, 2018/12/05)
- Kontuhartzaitza Sailaren ziurtagiria.

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehenengoa: Honako bi eskatzailei Ekintzaileentzat Kabiene Elkarteak duen elkarlan-gunean egonaldirako dirulaguntzaren %20a ordaintzea.

Eskatzailea	ENPRESA PROIEKTUA	Hasierako ordainketa %20
Aroa Etxeburua Ugartemendia	“Karena” Psikologia Perinatala	217,80



Usurbilgo Udala

Maitane Zuriarrain Urdanpilleta	"Mundu ttiki bat" Barne diseinua	217,80

Bigarrena: Garapen ekonomiko diru-laguntzak aurrekontu-partida honen kargura joango dira: 1.5000.481.241.00.03 (A 2707/2019)

Hirugarrena: Udaleko iragarki taulan eta www.usurbil.eus web orrian berri emango da.

Laugarrena: Kontu-hartzailetzari akordioaren berri emango zaio.

Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 9:30ean bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.